Hiri/Herria: Kanbo

Zerrendaren izena: Elgarrekin Kanboarentzat

Zerrenda buruaren izen, abizen eta kontaktuak: Christian Devèze

# ITUNA 2020

## IPAR EH-KO **METAMORFOSI EKOLOGIKOA**

**Kontziente gara baitezpadako beharra badela indar eta determinazio osoz Herriko Etxeen eta Euskal Elkargoaren mailan ekiteko, planeta mailako beroketa +2°C edo +1,5°C-ra mugatzeko, nahasmendu klimatikoaren hipotesirik txarrena saihesteko, jendarteari eta planetaren bio-aniztasunari etorkizun bizigarria eskaintzeko. Ondorioz, 2020ko martxoan hautetsi bilakatzen bagara, gure zerrenda engaiatzen da Herriko Etxe eta Euskal Elkargoaren 2020-2026ko agintaldian:**

### BAKARKAKO AUTOAREN ERABILPENAREKIKO ALTERNATIBOAK DIREN MUGIKORTASUN GUZIEN ALDE EKITERA

Bideen edozoin birmoldatzerentzat, lekualdatze moduak ondoko ordenan lehenetsiz: oinez ibiltzea > bizikleta > autobusa > autoa. Herriko bide guziak bizikletaz erabiltzeko gisan ezarriz, egokiena den birmoldatzearen bidez: abiaduraren ttipitzea, bizikleta bide edo zintekin, bizikletei kontrako-norabidea ahalbidetuz. Ipar Euskal Herri osoan garraio publiko eskaintza baten garapenean parte hartzea, jendartearen beharrei egokituak zaizkien maiztasun, ordutegi eta prezioekin.

### EGOITZETAN ENERGIAREN MENPERATZEAREN ALDE EKITERA

Kargualdiaren lehen hilabeteetan, Herriko eta Elkargoko eraikuntzen ondarearen arraberritze termiko plan anbiziotsu bat bozkatuz, kontsumo apalaren maila helburu izanez. Eraikin berriak, pasiboak eta energia ikuspuntutik positiboak direnak soilik eraikitzea. Négawatt-en lehentasunak segitzea: neurritasuna, eraginkortasuna, energia berriztagarriak. Etxebizitzen prekaritate energetikoaren kontra borrokatuz eta kontsumo elektrikoen ttipitzea sustatuz, lurralde animatze ekintzak plantan ezarriz (Energia Positibo Desafioa). Egoitzen kontsumoaren jarraipen erregularra segurtatzea.

### TOKIKO ELIKAGAIEN ETA LABORANTZA BIOLOGIKO BATEN ALDE EKITERA

%100 tokikoa, herrikoia, gehigarri kimikorik gabekoa/biologikoa den elikagaia helburutzat duen laborantza eta elikadura estrategia bat obratuz, Herriko eta Elkargoko egituretan. Kolektibitateko jantegietan ekinez, tokiko menu biologikoekin eta hautu begetariano batekin (haurtzaindegi, eskola, zahar-etxe, etab.). "Klimarentzat ona den" elikaduraren banaketa erraztuz (ekoizle saltegi, AMAP, janari-saltegi kooperatiboa...). Elikadura burujabetza lortzeko xedearekin, lantzen ahal diren lur erreserbak babestuz.

### %100 BERRIZTAGARRIAK DIREN ENERGIEN LURRALDE BATEN ALDE EKITERA

Gure lurraldean, energia berriztagarrien ekoizpena garatuz, 2045eko energia autonomia %100 berriztagarria izatea helburutzat ukanez: fotovoltaikoa, haize-energia, metanizazioa, berotasun sarea, energia hidroelektrikoa, marea-energia, etab. Tokiko ekimen herritarrak lagunduz elektrizitatearen ekoizpenaren (I-ENER) eta hornitzearen (ENARGIA) alorrean. %100 berriztagarriak diren elektrizitate, gas eta tokiko ekoizpenetik datozen egurraren bidez hornituz Herriko eta Elkargoko eraikin eta ekipamenduak.

### EUSKOAREN GARAPENARI ESKER TOKIKO EKONOMIAREN ALDE EKITERA

Euskal Moneta elkartearen kide bilakatuz, 2020tik beretik, eta Tokiko Kolektibitateen Biltzarrean parte hartuz, Herrian eta Euskal Elkargoan, lurralde-langile, hautetsi, biztanle eta enpresen artean euskoaren erabilpena garatzeko molde hoberenaren ikertzeko eta definitzeko.

### HONDAKINEN MURRIZTEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ALDE EKITERA

Lurraldeko biztanle eta aktore guziak parte harraraziz, hondakinen prebentzio eta kudeaketa estrategia bat definituz. Bio-hondakinak jatorrian bereiziz. Konpostatzearekin, bakarkakoa edo kolektiboa, posible delarik, balioztatzea sustatuz. Bestenaz, sukaldeetako bio-hondakinak bereiz biltzea antolatuz. Neurriak hartuz berinaren biltzea hobetzeko eta haren berrerabilerara buruz joanez itzultze sistemari esker. Prezioen ttipitzeen bidez praktika onen sustapena obratuz. Berrerabilera lehenetsiz, birziklategi eta konponketaguneei esker, %100 birziklatzearen bila ibili ordez.

### IPARRALDEKO KLIMA AIREA ENERGIA LURRALDE PLANA OSOKI GAUZATZERA

Herri mailako plan bat bozkatuz, udalaren Klima Planaren ardatz obragarriak zehaztuko dituen deliberamendua hartuz, kargualdiaren lehen urtea bukatu aitzin. Honen plantan ezartzearen gardentasuna segurtatzera, jarraipen tresnen bidez. Klima Planaren helburuekin bateragarriak ez diren proiektuak ez obratuz.

Sinadura

info@bizimugi.eu / www.bizimugi.eu

Commune : Cambo les Bains
Nom de la liste : Unis pour Cambo

Nom, prénom et contact de la tête de liste : Christian Devèze

# PACTE 2020
## MÉTAMORPHOSE ÉCOLOGIQUE PAYS BASQUE

Conscient.e.s de la nécessité absolue d'agir avec force et détermination à l'échelle communale et intercommunale pour contribuer à limiter le réchauffement planétaire à +2°C, voire +1,5°C, et éviter le pire scénario du dérèglement climatique, afin d'assurer un avenir viable à l'humanité et à la biodiversité planétaire, si nous sommes élu.e.s en mars 2020, **notre liste s'engage au cours des mandats communal et communautaire 2020-2026 à :**

### AGIR POUR TOUTES LES MOBILITÉS ALTERNATIVES À LA VOITURE SOLO

Pour tout aménagement de voirie, prioriser les modes de déplacement dans l'ordre suivant : marche > vélo > bus > voiture. Rendre cyclable l'ensemble des routes de la commune, par l'aménagement le plus adapté : réduction de la vitesse, pistes et bandes cyclables, contre-sens cyclables. Participer au développement d'une offre de transport en commun sur l'ensemble du Pays Basque, avec des fréquences, des horaires et des tarifs adaptés au besoin de la population.

### AGIR POUR LA MAÎTRISE DE L'ÉNERGIE DANS LES BÂTIMENTS

Dès les premiers mois du mandat, délibérer pour un plan ambitieux de rénovation thermique du patrimoine bâti communal et communautaire, en visant un niveau basse consommation. Construire uniquement des bâtiments neufs passifs à énergie positive. Appliquer le triptyque Négawatt : sobriété, efficacité, énergie renouvelable. Lutter contre la précarité énergétique des logements et encourager la réduction des consommations énergétiques par la mise en place d'actions d'animation territoriale (Défi Énergie Positive). Assurer un suivi régulier des consommations des bâtiments.

### AGIR POUR UN TERRITOIRE 100% ÉNERGIES RENOUVELABLES

Développer la production des énergies renouvelables sur notre territoire, avec un objectif d'autonomie énergétique 100% renouvelable à 2045 : photovoltaïque, éolien, méthanisation, réseau de chaleur, hydroélectricité, marémotrice, etc. Accompagner des projets d'initiatives citoyennes et locales pour la production (I-ENER) et la fourniture d'électricité (ENARGIA). Alimenter les bâtiments et équipements communaux et communautaires en électricité, gaz et bois issus de productions locales garanties 100 % renouvelables.

### AGIR POUR UNE AGRICULTURE ET UNE ALIMENTATION BIO ET LOCALE

Mettre en œuvre une stratégie agricole et alimentaire avec un objectif de 100 % d'alimentation paysanne sans intrant chimique, bio et locale, au niveau des structures communales et communautaires. Agir dans les cantines de la collectivité avec des menus bio, locaux et une option végétarienne (crèche, école, EHPAD, etc). Faciliter la distribution d'une alimentation « bonne pour le climat » (magasin de producteurs, AMAP, épicerie coopérative...). Sanctuariser les réserves foncières de terres cultivables pour viser une souveraineté alimentaire.

### AGIR POUR UNE ÉCONOMIE LOCALE PAR LE DÉVELOPPEMENT DE L'EUSKO

Adhérer à l'Eusko dès 2020 puis, conformément aux possibilités offertes par le cadre légal actuel, autoriser le règlement en eusko des services publics locaux (cantines, piscines, centres de loisirs, CCAS...) et informer élus, agents, associations et entreprises de la volonté de la mairie de les régler en eusko.

### AGIR POUR UNE RÉDUCTION DES DÉCHETS ET UNE ÉCONOMIE CIRCULAIRE

Définir une stratégie de prévention et de gestion des déchets en impliquant l'ensemble des habitants et acteurs du territoire. Trier les biodéchets à la source. Encourager la valorisation sur place avec le compostage individuel et collectif quand c'est possible. Sinon, mettre en place une collecte séparée des biodéchets de cuisine. Prendre des mesures pour améliorer la collecte du verre et aller vers la réutilisation grâce à des systèmes de consignes. Mettre en place une tarification incitative. Préférer promouvoir toute forme de réemploi grâce aux recycleries et aux lieux de réparation, plutôt que la recherche du 100 % recyclage.

### EXÉCUTER TOTALEMENT LE PLAN CLIMAT AIR ÉNERGIE TERRITORIAL DU PAYS BASQUE

Adopter avant la fin de la première année de mandat une délibération qui précise sous forme de plan communal les déclinaisons opérationnelles du PCAET à l'échelle de la commune. Assurer la transparence de sa mise en place via des outils de suivi. Ne pas mettre en œuvre des projets en contradiction avec les objectifs du PCAET.

Signature

info@bizimugi.eu / www.bizimugi.eu